

udal**top**

**UDALETAKO  
EUSKARA  
ZERBITZUEN**

**TOPAKETAK**

[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



# GOGOBETETZE INKESTA EMAITZAK

2026ko ekaina



## GOGOBETETZE INKESTA 2026

### SARRERA

**Justizia linguistikoa: diskurtsoak, praktikak eta oinarriak berdintasuna helburu** izenburupean, Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketa egin da 2026ko maiatzaren 21ean eta 22an. Aurreko edizioan bezala, parte-hartzaileek aukera izan dute jardunaldia Lasarte-Oriako Manuel Lekuona etxean edo online bidez pantailaz bestalde jarraitzeko.

Parte-hartzaileen iritzia ezagutzeko asmoz (guztira, 210 lagunek jarraitu dute jardunaldia, horietako 28 CPNLko Kataluniako teknikariak; azkeneko hauek ez dute inkesta honetan parte hartu) **Gogobetetze inkesta** bidali da eta astebetean, 67 erantzun jaso ditugu (iaz baino 15 gutxiago).

Galdetegian azpian zehazten ditugun eremuak jaso dira zenbakiz –eskala numerikoan, 1-5 artean puntuatzeko– eta idatziz erantzuteko:

1. Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira?
  - a. Hitzaldi guztien balorazioa jaso da, banaka, eta 1-5 arteko eskalan puntuazioa emateko eskatuz (txostenak ez du balorazio hori jasotzen).
2. Eskainitako bideo-testigantzak egokiak izan dira?
  - a. Bideo guztien balorazioa jaso da, banaka, eta 1-5 arteko eskalan puntuazioa emateko eskatuz (txostenak ez du balorazio hori jasotzen).
3. Iruzkirik egin nahi diozu hitzaldiren edo bideo-testigantzaren bati? Utzi hemen zure gogoeta.
4. Zer iruditu zaizu Maryse Urrutyren saioa?
5. Zer iruditu zaizu Josune Velez de Mendizabalen aurkezlearen lana?
6. Plaza-eztabaidaren baitan antolatu ditugun dinamikak egokiak iruditu zaizkizu?
7. Plaza-eztabaidak ohiko talde-lana ordezkatu du. Zer iruditu zaizu aldaketa?
8. Datozen edizioei begira, zer nahiago duzu?
9. Araeta jatetxean ez da bazkalostekorik izan. Zer iruditu zaizu?



## GOGOBEETZE INKESTA 2026

10. Zer iruditu zaizu Udaltop jarraitzeko eskaini dugun formula mistoa? (Manuel Lekuonan, aurrez aurre; eta, online).
11. Online emisioa egokia izan da?
12. Interpretazio zerbitzua egokia izan da?
13. Maila teknikoan, zer iruditu zaizkizu topaketak?
14. Izena emateko ordainpeko pasarela jarri dugu lehenengoz. Zer iruditu zaizu?
15. Zer iruditu zaizu Araetako otorduen zerbitzua?
16. Topaketa hauetan espero zenuena jaso duzu?
17. Zer iruditu zaizkizu Topaketak oro har?
18. Hobetzeko iruzkinak proposatu.
19. Hurrengo Topaketarako egokiak izan daitezkeen gaiak proposatu.
20. Bestelako aipamenak.



## GOGO BETETZE INKESTA 2026

### ERANTZUNAK, BATAZ BESTEKOAK

Jarraian, galderaz galdera, **Balorazio inkestan** jasotako erantzunekin ateratako batz bestekoak, puntuaziorik altuena 5a dela kontuan izanik.

- Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira?
  - Batz bestekoa: **4,15 puntu.**
- Eskainitako bideo testigantzak egokiak izan dira?
  - Batz bestekoa: **3,81 puntu.**
- Zer iruditu zaizu Maryse Urrutyren bukaerako umorezko saioa?
  - Batz bestekoa: **4 puntu.**
- Zer iruditu zaizu Josune Velez de Mendizabalen aurkezlearen lana?
  - Batz bestekoa: **4,16 puntu.**
- Plaza-eztabaidaren baitan antolatu ditugun dinamikak egokiak iruditu zaizkizu?
  - Batz bestekoa: **3,74 puntu.**
- Plaza-eztabaidak ohiko talde-lana ordezkatu du. Zer iruditu zaizu aldaketa?
  - Batz bestekoa: **3,75 puntu.**
- Araeta jatetxean ez da bazkalostekorik izan. Zer iruditu zaizu?
  - Batz bestekoa: **3,4 puntu.**
- Zer iruditu zaizu formula mistoa?
  - Batz bestekoa: **4,4 puntu.**
- Online emisioa egokia izan da?
  - Batz bestekoa: **4,61 puntu.**
- Interpretazio zerbitzua egokia izan da?
  - Batz bestekoa: **3,86 puntu.**
- Maila teknikoan, zer iruditu zaizkizu topaketak?
  - Batz bestekoa: **4,38 puntu.**
- Izena emateko ordainpeko pasarela jarri dugu lehenengoz. Zer iruditu zaizu?
  - Batz bestekoa: **3,71 puntu.**
- Zer iruditu zaizu Araetako zerbitzua?



## GOGOBETETZE INKESTA 2026

- Bataz bestekoa: **4,33 puntu.**
- Topaketa hauetan espero zenuena jaso al duzu?
  - Bataz bestekoa: **4,04 puntu.**
- Zer iruditu zaizkizu topaketak oro har?
  - Bataz bestekoa: **4,14 puntu.**



## GOGO BETETZE INKESTA 2026

### BESTELAKO ERANTZUNAK

#### BAI-EZ-EZ DAKIT/EZ DUT ERANTZUTEN

**Aurtengo edizioan talde-dinamika ezberdina izan da. Datozen edizioei begira, zer nahiago duzu? galderari jasotako erantzunak:**

1. Aurtengo talde-lanaren dinamika errepikatzea > % 47,8
2. Orain arteko talde-lanaren dinamikarekin jarraitzea > % 14,9
3. Ez dakit / Ez dut erantzuten > % 37,3

### IRUZKINAK

**Gogobetetze inkestan partehartzaileei bestelako gogoetak egitea edota hobetzeko iruzkinak idaztea eskatu zaie. Hona hemen erantzunak, atalez atal.**

**Iruzkinik egin nahi diozu hitzaldiren edo bideo-testigantzaren bati? Utzi hemen zure gogoeta**

1. Miren Otxotorenarena ez zen entzuten.
2. Hitzaldi batzuk ez zuten lotura handirik gai nagusiarekin (2)
3. Streaming bidez geundenok ez genuen entzun Miren Otxotorenaren lehen zatia.
4. Dentsoa, urak bere onera etortzeko itxaron behar.
5. Hortxe dago muga, pare bat edo bideo bidez ematea. Ez gehiago.
6. Edukia trinkoa bada, arretari eustea kostatzen da.
7. Nafarroari buruzkoa falta da zerrendan, eta nik 5 puntu emango nizkioke
8. Topaketa online jarraitu genuenok zenbait hitzalditan (bitan, hain zuzen ere) hasieran arazoak egon ziren behar bezala entzuteko, batez ere lehenengo eguneko azken bi komunikazioetan.
9. Hitzaldi guztiak oso interesgarriak iruditu zaizkit eta hizlariak bikainak. Batzuei puntuazio baxuagoa eman diet gure lanean ez direlako erabilgarriak, nahiz eta aurkeztutako ekimenak oso interesgarriak izan.



## GOGOBETETZE INKESTA 2026

10. Xabier Arzoz Santistebanen hitzaldia denbora ez zuen ondo planifikatu, edo hitzaldiaren zati bat azaldu gabe utzi behar izan zuen.
11. Bideo grabatua baino, hobe streaming konexio bat. Bideo grabazioa egitekotan, elkarrizketa eraikitzaile formatuan (adibidez bizpahiru adituren artekoa), eta ez galdetu-erantzun formatuan; azken formatu horretarako, hobe galdera azpigitulu gisa soilik sartzea, soilik elkarrizketatuaren irudiak ematea (sorry, Aitor) eta edizio pixka bat sartzea.
12. Euskararen historia sozialean interesatua nagoenez, hitzaldi horrek gehiago irautea edo gaian gehiago sakontzea gustatuko litzaidake.
13. Ez da berdin jasotzen, aurrez aurre edo bideoan.
14. Irudipena dut Hizkuntza-eskubideen izaera politikoa, Xabier Arzoz Santisteban-en hitzaldia sobera luzea izan zela, ezin gaia ongi azaldu edo ezin bukatu. Beste hauei berriz (Zer eman du, zer eman dezake eta zer ezingo du eman Euskararen Legeak? (Agurne Gaubeka, Eneko Compains eta Javier Eneriz), denbora gutxiegi eman zitzairen. Nafarroako egoera mintzagai zuen tarte bakarra zen eta hiru hizlarien ekarpenak oso beharrezkoak, oso interesgarriak, egoera ezagutzen ez dutenentzat, baita Nafarroako egoera ezagutzen dugunontzat ere. Gehiago sakontzeko gogoz geratu ginen.
15. Bigarren eguneko hitzaldiek, ia denek, ez zuten lotura esturik gai nagusiarekin. Lehenengo egunekoek, bereziki lehenengo hirurek, bai.
16. Batzuetan bideo formatuak astuna egiten du eduki handiko hitzaldia bada.
17. Equiling ikerketaren azalpena izugarri interesgarria iruditu zitzaidan, proposatutako gakoak (bigilantzia soziolinguistikoa, besteak beste) egunerokora ekar daitezkeelakoan nago. Gainera, bideoaren kalitatea eta egituraketa oso aproposa izan zen.



## GOGOBETETZE INKESTA 2026

### Hobetzeko iruzkinak:

1. Euskara jendea erakartzeko ideiak, ideia zaparrada, beste hizkuntzen esperientzia, antolaketa ereduak... ezagutzea beharrezkoa da. Pesimismoak eta teorizazioa apur bat alde batera laga, eta jauzi bat emateko zer eta nola egin. Arlo soziala, gazteak, etorkinak, gizarte berria, euskaldun berriak, lan arloa, arlo sozioekonomikoa, erdaldun zaharrak... Nola eragin?
2. Puntualagoak izatea, soinua hobetu (itzultzaileak entzuten ziren, gipuzkeraz aritu da...).
3. Gaiak pereza ematen zidan, baina uste baino arinago eta erabilgarriagoa suertatu zait.
4. Baloiarekin egin zen dinamika tentsioa eta giro desatsegina sortu zuen gure inguruan, talde handian hitz egitera behartzen zintuelako.
5. Talde dinamika parte-hartzearen freskotasuna ekarri du, baina jendea behartuegi senti ez dadin, gehiago landu beharrezkoa da. Bestalde, jardunaldiak lortu beharko luke bakoitzak etxera besapean "zerbait praktikoa" eramatea.
6. Online jarraitzeko aukera kendu beharko litzateke, aurrez aurrekoari indarra ematearren.
7. Egokiagoa iruditu zait lehengo talde-lanetako dinamika. Eraginkorragoa eta erosoagoa.
8. Hitzaldiko denbora edukietara doitzea: adibidez Euskararen Biziberritzea Araban eta Euskararen historia soziala Bilbon eta Zumaian hitzaldiek denbora sobera eduki dute edukia azaltzeko eta aldiz, Xabier Arzoz Santistebanek ez du denborarik eduki dena azaltzeko.
9. Pilotaren jokoa ez egitea, hitz egitera behartzen zaitu, eta momentu deserosoak sor ditzake...
10. Gaia oso interesgarria izan da, baina uste dut beste hartzaile batzuk jaso beharrezkoa dela: udaletako arduradun politikoak, idazkariak...
11. Esperientziatik haratago jo beharko luke topaketak. Esperientziak jasotzea ondo dago, baina ez dira udalentsako erabilgarriak. Udalek jarraibide zehatz batzuk behar dituzte, egitura bat sortu, eta horretarako prestakuntza behar dute: nola



## GOGOBETETZE INKESTA 2026

egin plangintza, nola dinamizatu taldeak, nola sortu eta erakargarriak egin difusiorako materiala, nolako jende-ekosistema dugu haiengana heltzeko modu bat bidatzeko... Teoria jakitea beharrezkoa da, egiten dugunaren oinarri bat izateko. Hala ere, hartzaileak ezagutu behar ditugu, nola heldu haiengana... oinarri teoriko batzuen bitartez.

12. Plaza-eztabaidena nahiko bortitza iruditu zitzaidan, egia esan. Egokiagoa iruditzen zait galderak eta hausnarketak nahi duenak egin ditzala. Urduritasuna eta presioa sentitu nuen, nire kasu pertsonalean ez bainuen ez galdera ez hausnarketarik (ez zitzaidan okurritzen behintzat). Gerora ikusi nuen hainbatek aretotik alde egin zutela dinamika horren beldur. Nik pertsonalki nahiago dut talde-lana, erosoago sentitzen bainaiz hitz egiteko edo galderak egiteko.
13. Web orrian dokumentuak jaisterakoan, Josean Buenoren dokumentua ezin da jaitsi. Bere ordeztu beste dokumentu bat jaisten da.
14. Parte hartzea sustatzeko dinamika batzuk nire ustez ez dira egokiak izan. Hasierakoak batez ere.
15. Talde lana, plaza-dinamikekin uztartzea posible balitz, hobe. Talde lanetan iruditzen baitzait teknikan artean elkar ezagutzea ahalbidetzen duela eta errealitateak hobeki ezagutzeko parada ematen duela. Parte hartzea errazagoa da. Dinamiketan ez hain erraza. Bestalderetik, Nafarroako egoera (Foru Dekretuak ezartzen duen egoera negargarria) ezagutu eta ze aukera, ze zirrikitu topatu daitezkeen, praktika onak aztertzeko denbora gehiago emango nioke. Argi dago bakoitzari interesatzen zaigun horretan sakondu nahi dugula, baina iruditzen zait proportzioan Nafarroari eta Iparraldeari denbora gutxiago eskaintzen zaiela.
16. Parte hartze sistema leheneratu. Gehiago findu hitzaldien gaiak, estuago lotu gai nagusiarekin.
17. Ez zen espero nuena izan: mardulagoa izango zelakoan nengoen, gaia kontuan hartuta; baina izugarri gustatu zait.



## GOGOBETETZE INKESTA 2026

### Hurrengo topaketetarako egokiak izan daitezkeen gaiak

1. Lan arloa eta arlo sozioekonomikoa. Nola eragin euskarara jendea erakartzeko.
2. Proposamen praktikoak. Lege babesik gabe egonda, zer egin daitezkeen benetan: irtenbideak, aurrera egiteko moduak... Gazteen ekarpenak ere interesgarria izan daitezke.
3. Gazteengana hurbildu, gazteak erakarri NOLA?
4. BFA eraldatzeko dinamika, GFA eta AFA eredu.
5. Arduradun politikoen papera erakundeen hizkuntza-politika aurrera ateratzeko.
6. Hizkuntza gaitasuna atakan: euskaltegiak, Euskara institutua eta euskara teknikariak, sare koordinatuak lortuko al du emaitzak optimizatzea?
7. Euskararen erabilera informala , erabilerako beharra versus kalitatearen paradigma.
8. Adimen artifiziala; aukerak, erronkak, mehatxuak. Esnatu ala hil: non eta zelan jarri lehentasunak esnatzeko? Gazteak, noizko gazte andana Udaltop jardunaldietan?
9. Euskararen biziberritzea/sustapena kulturatik abiatuta. EHn modu emergente eta auto-gestionatuan sortzen eta hedatzen ari den kulturak eman diezaiokeena euskarari (batez ere gazteei begira). Gazteen zirkuituetan organikoki euskaratik eta euskaraz sortzen diren errealitateen lekukotasunak.
10. Pertsonen kudeaketa, nola eragin haiengan, nolako gizarte-ekosistema dugu. Pertsonen ohituretan eragin nahi badugu, pertsonak ezagutu behar ditugu.
11. Gai bat: "Eta behingoagatik gazteei eskatzen badiegu esan diezagutela zaharragoak euskararen bueltan nola jokatzeko dugun eta nola jokatu beharko genukeen?"  
Beste bat: "Zein kultura marko elikatzen ditugu EHn? Kulturaren zein molde sustatzen dugu? Eta zein eragin du horrek guztiak euskararen zuzeneko eta zeharkako erabileran?"
12. Adimen artifiziala eta euskara; hizkuntza praktikak aro digitalean; udal langileak eta hizkuntza lidergoa (udala euskararen eredu aktibo).
13. Teknologia berrietan nola eragin: adimen artifiziala, pantailak etab. Bizitza sozialaren zati handi bat teknologia berrietan eta pantailetan pasatzen dugu.



## GOGOBETETZE INKESTA 2026

Badugu susmoa horrek guztion hizkuntzen erabileran garrantzia duela, bereziki gazteenen artean.

14. Esnatu ala hil liburuarekin lotutako zerbait.
15. Ume eta gazteak, erabilera eta esperientzia onak.
16. Hizkuntzek ez dute diskriminatzen diskurtsoaren lanketa.

### Bestelakorik aipatzeko

1. Azken urteotako ediziorik hoberena iruditu zait. Gaia, hizlariak, dinamikak... guzia kontuan hartuta.
2. Interpretazio lanari biko bat jarri diot, Vicenta Tasaren saioan interprete aldaketa izan zenean, nekez ulertzen zelako.
3. Oso zaila zen aurtengo gaia ikusita hizlari egokiak-eta aurkitzea, baina, oro har, asmatu egin dute antolatzaileek.
4. Justizia linguistikoa gaia izanda (ezezaguna eta sakona, nire ustez) oso interesgarria iruditu zait, gaiaren ikuspuntu desberdinak azaldu direlako. Gaia modu erraz eta ulergarrian azaldu dute.
5. Ondo legoke materiala banatzea; baita ordainagiri bat ateratzea ere ordaindu orduko.
6. Bazkalosteko "Egunean behin" jolastxoak asko gustatzen zitzaidan, eta uste dut giroa asko alaitzen duela. Ez dakit hori errekonstruzioa aukerarik dagoen.
7. Josean Buenoren aurkezpena jarri mesedez jaisteko moduan.
8. Lastima lehenengo bi hitzaldietan gehiago ez sakontzea. Uste dut bi ikuspegi ezberdin (punturen batean ia kontrajarriak) eskaintzen zituztela. Tarte oso laburra egon zen bietan sakontzeko. Are gehiago, bi hizlarietako mahai inguru moduko zerbait antolatzea ez zen gaizki egongo. Biekin eta Iñigo Urrutiarekin.